



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



NAHIKO! 3-4

ELKARBIZITZA
BERDINTASUNEZ

6

UNITATE
DIDAKTIKOA

FAMILIAREN KOADERNOA 18

Familia agurgarria:

Azken bi urteotan landutako unitate didaktikoen jomuga neska eta mutilen arteko egunero elkarbizitza da. Hori da Nahiko Programak eragin nahi duen aldaketa: emakumeen eta gizonen giza eskubideak garatzen dituen **familia eta gizarte mailako elkarbizitza**.

Egunez egun eta urratsez urrats eraikitzen dugun munduan, elkarren arteko tratu onez eta harreman justuagoz eta pozgarriagoz eraikitako elkarbizitzan, ez dute lekurik emakumeen aurkako indarkeriak, bazterkeriak eta ezberdinkeriak. Mundu hori **neska eta mutil bakoitzaren nortasunean eta autonomian** oinarritzen da, emakume eta gizon banakako bizi-ibilbidearen errespetuan.

Ohizko genero estereotipoen oka urdinak eta oka arrosak mundu grisa berreraiki eta bertan mantentzen gaituela ikasi dugu, emakumeak eta gizonak taldeka identikoak eginez eta emakumeak bigarren mailako hiritarrak bilakatuz.

Horren alternatiba eguneroko gauza txikietan (zainketa, lanbideak, aisialdia, komunikabideak...) **berdintasuna eta giza eskubideak** garatzea dela ikasi dugu. Berdintasun oka berdea deitu diogu: hiritartasun berbera duten nortasun ezberdineko emakume eta gizonez osaturiko mundua.

Ibilbide ezberdin hauek ezagutzen eta bereizten ikasi dugu. Zein bide ibiliko dugu gaurtik aurrera? **Zein ibilbidean ikusiko gaituzte seme-alabek? Zein elkarbizitza ezagutuko dute gure etxean?**

IZENA

1 FAMILIAKIDEEN ELKARBIZITZARAKO OPARIAK

Eskatu egiezu etxeko hiru pertsoneri zure bizitzan elkarbizitza ona eta pozgarria izateko Berdintasun Okatik oparituko lizkizuten 5 lauki edo osagarri esatea. Galdetu egiezu baita zergatia. Idatzi itzazu erantzunak beheko laukietan. Idatzi euren izena goikaldean.



IZENA .

- 1.....
- 2.....
- 3.....
- 4.....
- 5.....

IZENA.

- 1.....
- 2.....
- 3.....
- 4.....
- 5.....

IZENA.


- 1.....
- 2.....
- 3.....
- 4.....
- 5.....

2

NIRE FAMILIAREN ELKARBIZITZAREN
ERREZETA

FAMILIAREN ELKARBIZITZAREN BI GARAI BIKAIN

Bietako bat zuk gogoratu behar duzu. Bestea ez duzu gogoratu behar, zu jaino aurrekoa edota oso txikia zinekoa izan behar du. Beraz, etxekoei galdetu. Itsatsi hemen garai horietako bi argazki (fotokopia) eta idatzi behean noiz izan zen eta zergatik aukeratu duzuen.



ZER JARTZEN ZUEN BAKOITZAK ELKARBIZITZA
HORRETAN?

IZENA	EKARPENA

IZENA	EKARPENA

3 "BERDINTASUNAK GIZONAGO EGITEN ZAITU"

**URTEBETEN
10.000
SINADURA
JASO DIRA**



Zure etxeko gizon eta mutilei azaldu egiezu Gizonduz ekimenaren Eskutitza.

Ados badaude, sinatu dezatela orrialde honetan eta Interneteko helbidean: http://www.berdingune.eu/skadi.net/u89-congizon/eu/contenidos/informacion/quees/eu_gizonduz/quees.html



"Eskutitz hau sinatzen dugun gizonok badakigu gure gizartean ez dagoela berdintasunik emakumeen eta gizonen artean, eta gehienetan emakumeak gizonen menpe daudela. Ondorioz, gizonok hainbat pribilegio dauzkagu: aisialdirako denbora gehiago daukagu; lanean, komunikabideetan, politikan nahiz ekonomian presentzia eta kargu handiagoak ditugu; eta emakumeen etxeko lanaz eta zaintzaz gozatzen dugu. (...)

KONPROMISO HAUEK HARTUKO DITUGU:

- Bazterketa sexisten aurkako emakumeen borroka oro babestuko dugu.
- Indarkeria matxista gaitzetsiko dugu.
- Aldaketa pertsonal eta gizarte-aldaketak berraztertuko ditugu.
- Zaintza eta etxeko ardurak balioztat eta geuretzat hartuko ditugu.
- Sexu-aukera eta sexu-orientazio librea lortzearen alde egingo dugu.
- Indarkeria ez dugu arazoak konpontzeko zilegizko tresna gisa hartuko eta baztertu egingo dugu."

SINADURAK.